

**2015eko ABENDUAREN 16AN BIGARREN DEIALDIAN EGINDAKO INAZIO BEREZIARTUA MUSIKA ESKOLAKO BATZAR OROKORREKO AKTA**

GAI ZERRENDA:

- 1.- AURREKO AKTAREN ONARPENA
- 2.- MEMORIA AKADEMIKOA
- 3.- 2014-2015 IKASTURTEAREN BALANTZEA
- 4.- 2015-2016 IKASTURTEKO AURREKONTUA
- 5.- EKINTZEN EGITARAUA
- 6.- ZUZENDARITZA BATZORDEAN PARTAIDE BERRIEN ONARPENA
- 7.- ESKAERAK ETA ERANTZUNAK.

Iluntzeko 8etan hasi da bilera boto eskubidea duten 7 pertsonarekin.

1.- AURREKO AKTAREN ONARPENA.- Aho batez onartu da.

2.- MEMORIA AKADEMIKOA.- Jose Antonio Gomez Garrido jaunak memoria akademikoko datuak azaldu ditu.

Ikasturte honetan 616 ikasle daude, 403 neska eta 213 mutil. 5 eta 6 urte bitarteko ikasleak (63), 7 urtekoak (48) eta 8tik aurrera adin mugarik gabe: akordeoia 11, biolina 39, biolontxelo 25, dantza 228, flauta 15, gitarra 47, kantu korala 98, klarineta 19, hizkuntza musikala 178, oboea 3, panderoa 2, perkusioa 24, pianoa 105, saxofoia 38, trikitixa 21, tronboia 13, tronpa 3, tronpeta 23 eta txistua 6.

3.- 2014-2015 IKASTURTEAREN BALANTZEA-

**Sarrerak:**

Ikasleen kuotak .....	210.140,60
Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza.....	177.211,02
Udala .....	371.454,86,-
Sarrera finantzarioak.....	6,28
<b>Sarrerak guztira .....</b>	<b>758.812,76 €</b>

**Gastuak:**

Pertsonal gastuak .....	682.884,74
Gastu orokorrak .....	70.735,78
Gastu finantzarioak .....	5.827,11
Amortizazioak .....	915,01
<b>Gastuak guztira .....</b>	<b>760.362,64€</b>
<b>Ekitaldiko defizita .....</b>	<b>-1.549,88</b>

4.- 2015/16 IKASTURTEKO AURREKONTUA

**Sarrerak:**

Ikasleen kuotak .....	218.000
Diru laguntzak:	
Eusko Jaurlaritza .....	177.211
Udala .....	414.589
<b>Sarrerak guztira .....</b>	<b>809.800</b>

**Gastuak:**

Pertsonal gastuak .....	727.000
Ustiapen gastuak .....	74.800
Gastu finantzarioak .....	8.000
<b>Gastuak guztira .....</b>	<b>809.800</b>

5.- EKINTZAK

Imanol Garaizabalek ikasturte honetako ekintzen egitaraua irakurri du, aurreko urteetako dinamika jarraitzen du. 2016an aurreko urteekin aldaratuz, Maiatzean ospatuko den Europako Musikaldia da aipagarriena. Donostia 2016 ko ekintza izanik, Elgoibar Egoitzetako bat izango da. Ondorioz 6an eta 7an Europar Musikari asko etorriko dira herrira, kontzertu "potoloak" eskainiz.

6.-- ZUZENDARITZA BATZORDEAN PARTAIDE BERRIEN ONARPENA

Guraso edo ikasle berriak Zuzendaritza Batzorderako beraien burua aurkezteko, idazkaritzan eman behar zuten izena. Ez denez inor aurkeztu, bere horretan jarraitzen du. Hurrengo urtera begira, ahalegin berezia egin beharko dugu jendea animatu dadin.

7.- ESKAERAK ETA ERANTZUNAK.-

Beste gairik ezean Jose Antonio Gomez Garrido lehendakariak bukatutzat eman du bilera.